



OIHANEKO ANIMALIAK

ANE ORBEA AIZPITARTE

IDOIA ASTARLOA IZARRA

HAUR HEZKUNTZA

4 URTE

R-300 A PROIEKTUAK 2014-15 2.TXANDA

2015eko MARTXOA

AURKIBIDEA

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA	4
HELBURUAK.....	4
NORI ZUZENDUA	5
ESPERIENTZIA EREMUAK	5
MATERIALA.....	5
METODOLOGIA	5
KORROAN	5
TXOKOAK.....	6
Matematika-txokoan.....	6
Informatika-txokoan.....	7
Liburutegian	7
Plastika-txokoan	7
Eraikuntza-txokoan	7
Idazketa-txokoan.....	7
Etxe-txokoan	7
BIBLIOGRAFIA	8
ERANSKINAK	9

OIHANEKO ANIMALIAK

PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Proiektu hau Haur Hezkuntzako umeekin lantzeko diseinatuta dago. Gure asmoa ikaskuntza esanguratsuan eta zehar-lerroetan oinarritzea da; hori dela eta, gaia eta bertan landuko diren kontzeptuak Ingurumenaren Ezagueraren arloko kontzeptuei lotzen bazaizkie ere, beste esperientzia-eremu batzuetako edukiak eta ikaskuntzak ere jorratu nahi ditugu.

Horrela, oihaneko animalien ezaugarriak, bizilekua, ohiturak eta abar ezagutzen saiatuko gara, eta hori egiteaz batera, idazketaren, zenbaketaren, ahozko komunikazioaren, abesti eta gorputz-adierazpenaren inguruan arituko gara animalia horiek aitzakiatzat hartuta.

Kontzeptuak beregana ditzaten, umeentzat erakargarriak diren formatuak erabiltzen saiatu gara: irudiak, ipuinak, musika, jolasak eta teknologia berriak. Teknologia berrien artean, bideoak eta **Jclick** programa informatikoa baliatu ditugu. Programa horrek haurrek oso gustuko dituzten jolasetan eta ekintzetan jarduteko aukera eskaintzen digu: puzzleak, *memory*-ak, elkarketa-jolasak eta abar. Betiere, jakina, gure gaiari lotutakoak. Horiekin, arreta mantentzeaz gain, haurrak gaur ezinbesteko tresna den ordenagailuaren erabileran trebatuko dira, eta begi-esku koordinazioa ere landuko dute.

Lana 4 urteko umeekin aritzeko prestatu dugu, eta oso kontuan izan dugu gela horretan hezkuntza premia bereziak dituzten haurrak ere badaudela. Dena den, ez dago lan berezirik haientzat; izan ere, besteek egingo dituzten jarduera berberak egingo dituzte, bakoitzak bere trebetasunen eta gaitasunen arabera. Azken finean hori baita hezkuntza inklusiboa, haur bakoitzaren beharretara egokitzea (hezkuntza premia bereziak izan ala ez) eta guztiok elkarlanean proiektu bat aurrera ateratzea. Eta hori guztia, jakina, ongi pasatuz.

HELBURUAK

- Oihaneko animalia batzuk ezagutzea eta zenbait kontzeptu bereganatzea, hala nola, 10 arteko zenbakiak, animalien izenak, animalia horiek zer jaten duten, nola mugitzen diren eta abar.
- Animaliei buruzko elkarrizketen bitartez, ahozko komunikazioa bultzatzea. Korroan parte hartzea bideratuz, animalien deskribapenak eginez edota etxetik ekarritako informazioa besteei azalduz, adibidez.
- Arreta gero eta denbora luzeagoz mantentzea. Besteek esaten dutenarekiko interesa agertuz, txandak errespetatzea.
- Animalia batzuen izen idatziak identifikatzea (eta ondoren idaztea).
- Taldeko lana eta sormena bultzatzea.

NORI ZUZENDUA

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lau urteko umeei eta, bereziki, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei zuzendua dago.

ESPERIENTZIA EREMUAK

- Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala
- Ingurunearen ezaguera
- Hizkuntzak, komunikazioa eta adierazpena

MATERIALA

- Euskarri digitala: bideoa, ordenagailu jolasak (**Jclick** programako puzzleak, *memory*-a, bikoteak egin...)
- Txartelak: animalien irudiekin batzuk, eta animalien izenekin besteak
- Jolas manipulatioak: animalien figurak, puzzleak..
- Mozorroak
- Ipuina (ohiko formatuan)

METODOLOGIA

Bi esparrutan egingo dugu lan. Alde batetik talde handian edo korroan, eta, bestetik, txokoetan.

KORROAN

Korroan egingo dugun lana hainbat saiotan banatuko dugu.

Lehenengo saioan, gaia aurkezteko bideoa ikusiko dugu. Bideoa ikusita, ikasleekin bertan azaltzen diren animaliez eta inguruez hitz egingo dugu. Saioa bukatu aurretik, ikasleei eskatuko diegu etxetik ekartzeko animaliekin erlazionatuta dauden ipuinak, argazkiak, aldizkariak, jostailuak eta abar.

Bigarren saioan, ikasleek etxetik ekarritako materiala –ipuin, argazki, aldizkari, jostailu...– erakutsiko diete ikaskideei (egun bakoitzean hiru ikaslek, saioa gehiegi luza ez dadin). Azalpen horiek ematean trabatzen direla edo zailtasunak dituztela ikusten badugu, galderen bidez lagunduko diegu kontakizuna aurrera eramaten. Aurkezpenak antolatzeke, gelako ikasleen zerrenda jarraituko dugu. Ikasleen aurkezpena amaituta, irakasleak hiru animaliaen aurkezpena egingo du. Horretarako, txartelak erabiliko ditu; animalia bakoitzeko, bi: batean animaliaen argazkia azalduko da eta bestean, izena; eta aurkezpena bukatzean, kortxoan jarriko ditu.

Ondorengo hiru saioetan, bigarren saioan azaldutako prozedura errepikatuko da; horrela, gelako ikasle guztiek eta irakasleak egiteko aukera izan dezaten. Irakasleak, guztira, hamabi animalia aurkeztuko ditu.

Seigarren saioan, irakasleak gaia lantzeko egokia den ipuina irakurriko du. Ipuinean azaltzen dena kontuan hartuta, ikasleak ipuineko animalien ibilera imitatzen animatuko ditugu. Bestalde, liburuan azaltzen diren zenbait eduki, –zenbakiak, esaterako–, matematika-txokoan landuko dira. Landu beharreko zenbakiak 10 artekoak izango dira.

Zazpigarren saioan, *Oihanetik badoaz* animalien kanta entzun eta bideoa ikusteko aukera izango dute, kanta **you tube**-tik har daiteke. Bideo horretan abestia imintzioek lagunduta agertzen da. Haurrek abestia ikasteaz batera, keinuak egingo dituzte bideoari jarraituz.

Zortzigarren saioan, gelan erabiltzeko liburuxka bat osatzea proposatuko diegu. Horretarako, gurasoen laguntzaz, etxean informazioa bilatu (animaliaren argazkia eta datu orokor batzuk) eta ondoren gelara ekarriko dute. Ikasleek hautatutako animalien kontrola eraman behar du irakasleak, aukeratutako horietan errepikapenik egon ez dadin.

TXOKOAK

Txokoetan lan egiteko, haurrak taldetan jarriko ditugu; 4-5 ume, talde bakoitzeko. Talde bakoitza txoko guztietatik pasako da; horrela, haur guztiak txoko guztietatik igaroko dira.

Txoko bakoitzeko gaia edo arloa oihaneko animaliekin erlazionatuko dugu. Hau da, matematika-txokoan, informatikakoan, plastikakoan, idazketa-txokoan, eraikuntzakoan eta liburutegikoan irakasleak zein ikasleek ekarritako materiala erabiliko dugu.

Taldeka, ume bakoitza txoko guztietatik pasako da, eta, horrela, eskaintzen zaizkion jarduera guztietan arituko da.

Matematika-txokoan

Matematika-txokoan, *Eguzkiaren atzetik* ipuinean landutakoa kontuan hartuz, 10 arteko zenbakiak ikasiko ditugu, besteak beste. Lehendabizi, konkrezio maila handiko jarduerak egingo ditugu, eta, ondoren, abstrakzio maila handiagoa eskatzen duten jardueretan arituko gara. Hots, kopuruak lantzeko manipulazio-jolasetatik hasi eta pixkanaka zifrak idazteko saiakerak egiteraino (1etik 10era, betiere).

Esan bezala, lehenengo, manipulazio-jolasak egingo dituzte. Esaterako, eraikuntza txokoan egoten diren animalien figurak baliatuz, multzoak egingo dituzte: lehoi guztiak multzo batean, elefante guztiak beste batean eta abar. Ondoren, multzo bakoitzeko animaliak zenbatu

beharko dituzte, eta lortutako kopurua eskura edukiko dituzten egurrezko edo plastikozko zenbakiekin lotu.

Oihaneko animalien familia-kartak ere egokiak izan daitezke zenbakiak eta koloreak lantzeko.

Azkenik, kopuruak eta grafia lantzeko, abstrakzio maila handiagoa eskatzen duten fitxak egingo dituzte. Adibidez, zazpi tximino agertzen diren fitxa batean *bost* zenbakia agertzen bada, hurrek bost tximino bakarrik margotu beharko dituzte, eta ez guztiak, eta, ondoren, zenbakiak idatzi puntutxoan gainera.

Informatika-txokoan

Informatika-txokoan **Jklik** programa erabiliko dugu, oihaneko animalien puzzleak osatzeko, bikoteak lotzeko eta antzeko jolasak egiteko. Informatika-txokoan binaka jarriko dira ikasleak, ordenagailua txandaka erabiliz.

Liburutegian

Gelako liburutegian (ipuinak eta liburuak biltzen ditugun txokoan), gelako ohiko liburuez gain, hurrek zein irakasleak oihaneko animaliei buruz etxetik ekarritako liburu eta ipuinak jarriko ditugu eskura, hurrek nahi dituzten ipuinak aukeratu eta ikusteko.

Plastika-txokoan

Plastika-txokoan maskarak egingo ditugu. Lehenengo, Internetetik animalien aurpegierak dituzten marrazkiak aterako ditugu. Jarraian, ikasleek animaliak aukeratu eta marrazkia itsatsiko dute kartoietan. Ondoren, irakaslearen laguntzaz, kartoia moztuko dute animalia silueta lortzeko. Gero, argizarizko pinturak erabiliz margotuko dituzte; eta, azkenik, irakaslearen laguntzarekin, zulatu eta gomak jarriko dituzte. Maskara horiek gelan erabil daitezke. Adierazpen plastikoaz gain, lexikoa ere landu daiteke, animalia eta koloreena.

Eraikuntza-txokoan

Txoko honetan eraikuntza-jolasez gain, plastikozko animaliak ere egoten dira. Umeak etxetik plastikozko animalia gehiago ekartzera animatuko ditugu, guztiekin jolasteko.

Idazketa-txokoan

Txoko honetan, azken lana egingo dute: oihaneko animalien liburuxka. Haur bakoitzak gurasoen laguntzarekin aukeratutako animalia argazkia eta informazioa ekarriko du etxetik. Ondoren, haur bakoitzari formatu bereko orri bat emango zaio, erdialdean karratu bat duena argazkia itsasteko, eta azpian marra zuzen gutxi batzuk (2-3), animalia izena eta zenbait ezaugarri idazteko. Ezaugarri horietako batzuk –bazka, ibilera, tamaina eta abar– aurretik korroan landu, eta txarteletan idatziko ditugu, haurren idazketa-lana errazteko. Azkenik, ume guztiek fitxa bukatzen dutenean, irakasleak guztiak batu eta josiko ditu. Liburua gelan utziko dugu, guztiok erabiltzeko.

Etxe-txokoan

Haurren batek animalien mozorrorik ekarriko balu, etxe-txokoan utziko genuke, han jolasteko.

BIBLIOGRAFIA

BORT MISOL, Fernando; *Enciclopedia completa de los Animales*, Ediciones SM, 2009.

PLAZAOLA, Ibon; IRIARTE, Ramon; *Klima gogorretako animaliak*, Ttartalo argitaletxea, 2009.

MENDIOLA, Ainara; MARAMARA taldea; *Eguzkiaren atzetik*, Maluta argitaletxea, 2010.

"Animaliak oihanean" bideoa. Josune irakaslea. 2013/05/20. <https://www.youtube.com>.
<https://www.youtube.com/watch?v=3FvKr6etjHY>

"Sortzen-Animalien ibilkera" bideoa. Kukuxumuxu. 2011/10/11an eguneratua.
<http://www.enekantak.com/bideoak/ene-kantak/>

<http://www.nhfournier.es/productos/naipes-infantiles/naipeseducativos/kiricuak>

<http://www.pixabay.com/es/photos>.

<http://www.dreamstime.com>

<http://www.orientacionandujar.wordpress.com/>

<http://www.parapintarycolorear.com/>

ERANSKINAK

IZEN-TXARTELAK

ELEFANTEA

LEHOIA

TIGREA

SUGEA

TXIMINOA

ZEBRA

IGUANA

JIRAFa

HIENA

TXORIA

KROKODILOA

HIPOPOTAMOA

EZAUGARRIEN TXARTELAK

LEHOIA

Handia da.

Buru handia da.

Ilea buru gainean du.

Lau hanka ditu.

Haragia jaten du.

Kumeak tripatik jaiotzen dira.

JIRAFA

Handia da.

Oso altua da.

Lepo luzea du.

Lau hanka ditu.

Hostoak eta belarra jaten ditu.

Kumeak tripatik jaiotzen dira.

ELEFANTEA

Handia da.

Lau hanka ditu.

Bi belarri handi ditu.

Tronpa luze bat du.

Bi hortz ditu.

Belarra eta hostoak jaten ditu.

Kumeak tripatik jaiotzen dira.

TIGREA

Handia da.

Lau hanka ditu.

Haragia jaten dute.

Kumeak tripa barruan daude.

TXIMINOA

Txikiak, ertainak eta handiak daude.

Lau hanka dituzte.

Belarra eta intsektuak jaten dituzte.

Kumeak tripatik jaiotzen dira.

ZEBRA

Handia da.

Lau hanka ditu.

Belarra jaten du.

Kumeak tripa barruan daude.

SUGEA

Luzea da.

Ez du hankarik.

Arrastaka dabil.

Ezkataz estalia dago.

Haragia jaten du.

Kumeak arrautzetatik jaiotzen dira.

HIENA

Txikia da. Txakur baten tamainakoa.

Ehiztari trebea da.

Baraila oso indartsuak ditu.

Haragia jaten du.

Kumeak tripatik jaiotzen dira.

TUKAN

Hegazti bat da.

Moko laranja handi bat du.

Fruituak eta intsektuak jaten ditu.

Kumeak arrautzetatik jaiotzen dira.

KROKODILOA

Handia da.

Gorputza ezkataz estalia du.

Buztan handi bat du.

Aho handi bat du.

Haragia jaten du.

Arrastaka ibiltzen da.

Kumeak arrautzetatik jaiotzen dira.

HIPOPOTAMOA

Handia da.

Lau hanka motz ditu.

Belarra jaten du.

Uretan egotea gustuko du.

Kumeak tripatik jaiotzen dira.

IGUANA

Muskerraren familiakoa da.

Kolore biziak ditu.


Isats luzea du.

Arantzadun gandorra du bizkarrean.

Haragia jaten du.

Kumeak arrautzetatik jaiotzen dira.

ANIMALIA



Izena: _____